



BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua kaxa bat da, eta bere helburu nagusia da ikastean edo lanean kontzentratuta egotea, mugikorrak sortzen duen distrakzioa ekiditzen saiatuz. Askotan, zerbait egiten ari garenean, mobila ondoan edukitzeak tentazioa handitzen du, eta horregatik sortu dugu kaxa hau.

Zein arazo konpontzen du KUBIXAk?

- Kontzentrazio falta, ikasteko edo lanean aritzeko orduan.
- Pantailen gehiegizko erabilera, lotara joan aurretik edo atseden hartu nahi dugunean.
- Mugikor-mendekotasuna, eguneroko ohituretan gero eta gehiago nabaritzen dena.

Norentzat da?

KUBIXA bereziki pentsatuta dago:

- Ikasleentzat, etxeko lanetan edo azterketak prestatzen ari direnean.
- Unibertsitarioentzat, kontzentrazio handia behar duten uneetan.
- Helduentzat, etxean edo bulegoan lana eten gabe egin nahi dutenentzat.

Erabilera oso sinplea da: mobila kaxan sartzen da eta erabiltzaileak aukeratutako denbora igaro arte ezin da ireki. Kaxa handia eta trinkoa da, telefono modelo guztietara egokitzen dena. Goiko aldean tapa bat du ixteko eta irekitzeko, eta kolore neutroetan diseinatu dugu (txuria, beltza, beixa), tentazioa ez areagotzeko. Atzeko aldean kargatzeko zuloa eta plaka solarrak ditu, erabilera erosoagoa izan dadin.

Gure produktua berezia da. Gaur egun antzeko produktuak badauden arren, KUBIXAk baditu benetan berezia egiten duen elementuak:

-Plaka solarrak. Horri esker, kutxa eguzkiaren bidez kargatu daiteke, modu honetara energia garbiagoa eta autonomia handiagoa lortzen da.



-Gure kutxa bi kontakturen bidez bakarrik ireki daiteke, beste kutxak kontaktu gehiago jartzeko aukera ematen dute, kontaktu gutxiagorekin distrakzioa ere txikiagoa izango da.

-App-aren bidez funtzionatzen du, auto-kontrola eta ohitura sistematikoak lortuko dugu.

Gainera, gure produktua konpetentziarena baino efizienteagoa da. Beste kutxa batzuek dei guztiak erantzuteko aukera ematen duten bitartean, KUBIXAk bi kontaktu zehatz baizik ez ditu baimentzen, horrela distrakzioak gutxituz eta benetan garrantzitsuak diren deiak bakarrik hartzen dituzu.

KUBIXAren abantaila nagusiak:

- Kontzentrazioa hobetzen du: mugikorra kaxan dagoen bitartean, ez dago WhatsApp, TikTok edo sare sozialen tentaziorik.
- Ohitura osasuntsuak sortzen laguntzen du: ikastea, irakurtzea edo ohera joatea mugikorrik gabe egiteko aukera ematen du.
- Bi kontaktu bakarrik baimentzen ditu: larrialdiak edo benetan garrantzitsuak diren deiak jasotzeko.
- Plaka solarren bidez funtzionatzen du: energia aurrezten duzu eta ingurumena gehiago zaintzen duzu.
- Aplikazioaren bidez kontrolatzen da: denbora programatu eta blokeoa aktibatu; ez dago atzera egitekorik, eta horrek helburua betetzen laguntzen du.
- Pitido jasanezina, ordua programatu eta mugikorra sartzen ez baduzu, kaxak soinu jasanezin bat egingo du eta mugikorra sartu harte ez da ixilduko, horrek mugikorra kaxan sartzea bermatzen du.

Azkenik, gure kutxaren elementu bereizgarriak dira bere erabilera mugikor aplikazio baten bidez kontrolatzea, aplikazio honek aukera emango liguke: ordu bat jarraian ikasteko eta gero denbora tarte txiki bateko atsedena egiteko, horrela errazagoa izango da kontzentrazioa mantentzea. bluetooth bidez eta eguzki plaken bidez kargatzeko aukera izatea. Gainera, aplikazioan aurrez ezarritako orduan mugikorra kutxan ez baduzu uzten, honek soinua egiten hasten da mugikorra bertan utzi arte, ezaugarri honekin, gure buruaren kontrola hartuko dugu behar den garaian mobila uztera behartuta zaudelako. Ezaugarri hauek guztiek gure produktua bakarra eta

erabilgarria bihurtzen dute, eguneroko bizitzan teknologia arduratsuago eta orekatuago baten aldeko urrats gisa.



GIH edo ODS

3. Osasun eta ongizatea: Arlo honetan gure produktua mesedegarria izan daitekeela uste dugu, izan ere; mugikorraren erruz gaur egun arazo asko ditugu, eta hori nolabait eragotzi ahal badugu, bakoitzaren osasunerako mesedegarria izan daitekeela uste dugu. Gure produktuari esker, gaur egun pertsona askok duten adikzioa mugikorrarekiko gutxitzea izango litzateke helburua.



4. Kalitatezko hezkuntza: Mobila kaxan duzunean, askozaz produktiboagoa izango zara egiten ari zaren lanean, denbora azkarragoan ikasiko dituzu gauzak, eta eraginkortasun handiagoa izango duzu, mobilak harreta kentzen bait digu.



7. Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea: Kutxa kargatzeko eta beharrezkoa ez danean energia ez kontsumitzeko, eguzki plaka txiki batzuk izango ditu kargatzeko, modu honetara energia garbiagoa eskuratuko dugu, eta ez dugu klima kutxatuko. Kargadore bat izango du ere, gehien bat eguzki gutxi dagoen lekuetan edo momentuetan erabiltzeko. Baina gure ideia printzipala eguzki plakekin kargatzea da, kargadorearen menpe ez egoteko aldiro, eta kutxa arinagoa eta erabilgarriagoa bihur dedin.



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure produktua batez ere 12 eta 35 urte bitarteko gazte ikasleei zuzenduta dago, talde honetan ikusten delako mugikorraren erabilera eta mendekotasun-mailarik handiena. Segmentu honetan sartzen dira:

- DBH eta Batxilergoko ikasleak.
- Lanbide heziketako ikasleak.
- Unibertsitateko ikasleak eta gazteak.
- Oposizioileak edo prestakuntza-prozesuan daudenak.

Bestetik ere, helduek edo mugikorrari adikzioa dioten pertsonak erabili dezakete. Mugikorra gutxiago erabiltzeko eta produktibitatean edo lan pertsonalean hobeto zentratzeko.

Gure bezeroek normalean arazo hauek dituzte:

- Mugikorra egunean ordu askotan erabiltzen dituzte (sare sozialak, jokoak, TikTok, etab.).
- Ikasketan edo lanean kontzentrazio arazoak izan ditzakete, notifikazioen eta pantailaren distrakzioengatik.
- Auto-kontrola hobetu nahi dute (ikasteko, lan egiteko, irakurtzeko, ondo lo egiteko...).
- Teknologia erabiltzera ohituta daude, baina soluzio sinple eta praktikoak baloratzen dituzte, erabilera intuitiboa dutenak.

Hasieran, gure produktua Euskal Herrian merkaturatzea aurreikusten dugu, ingurune hurbilean bezeroen erantzuna eta erabilera-ohiturak hobeto ezagutzeko. Ondoren, arrakasta eta eskariaren arabera, salmenta Espainiako estatu osora eta, epe luzera, Europa mailara zabaltzea da gure helburua.

Egunerokoan, gure produktua bereiziki ona da arlo hauetan:

- Eskola eta institutuetan, ikasgelan edo etxean ikasten ari diren gazteentzat
- Unibertsitate eta liburutegietan, kontzentrazio handia behar duten ikasleentzat
- Etxean, mugikor-denbora murriztu eta lo-orduak errespetatu nahi dituzten gazte eta helduentzat

